



IKASLEAREN ESKU-HARTZE LARRIA

Protokolo hau hurrengo kasuetan eramango da aurrera:

- a) ikaslea kontrol kanpo dagoenean,
- b) bere jokabidea edota urduritasuna arautzea ezinezkoa denean,
- c) ikasleen edota helduen osotasun fisikoa eta psikikoa arriskuan dagoenean.

Protokoloa hurrengo pausuetan datza:

1. PAUSUA: ERREFORTZUAK BILATU.

Bi ikasle zuzendaritzara bidali laguntza eske. Zuzendaritza-taldea arduratuko da HPB taldeko kideak aurkitzeaz (Aholkularia, erreferentziako PTa, beste PTa).

Aparteko laguntzarik behar izanez gero, hurrenkera honetan eskatuko da:

- Hezitzaileak.
- Zuzendaritza taldea.
- Ordu libreak dituzten irakasleak.

2. PAUSUA: IKASGELAREN EBAKUAZIOA.

Irakasleak leihoak itxiko ditu, gainerako ikasleak ikasgelatik ordenan irten eta hormaren ondoan ilaran jartzen diren bitartean. Denak kanpoan daudenean, ikaslea izan ezik, atea itxiko da, eta bertan errefortzuak egongo dira. Taldea eta erreferentziako pertsona, aurretik adostutako gela batera joango dira, bertan, klasearekin jarraitu ahal izateko.

3. PAUSUA: ERREFORTZUEN FUNTZIOAK.

- a) **Azkartasuna.** Errefortzuak lehenbailehen heldu behar dira.
- b) **Eustea eta babesa.** Atea itxita mantendu eta ikaslea lasaitu arte itxaron.
- c) **Iraupena:** gertaeraren hasiera eta amaiera neurtzea. Iraupena ausazkoa izan daiteke, beraz, eutsi posizioari, lasaitasunera itzultzea erraztuz.

[Egoera jasanezina bada, 112 edo 944100000 telefonora deitzea gomendatzen da.](#)

- d) **Laguntza emozionala.** Lasaitasuna eta babesa transmititzea. Garrantzitsua da bere jokabidea ez saritzea, adibidez, jolasak erabiliz. Babes- eta lasaitasun-mezu bat helarazi beharko da. Garrantzitsua da ulertzea gertatzen dena gertatzen dela, ez dagoela bakarrik eta axola zaigula. Horretaz aparte, hausnarketa eta autokontzientzia sustatzea honako galdera hauen bidez:

- a. Zer gertatu da?
- b. Zer moduz zaude orain? Nola sentitu zara lehenago?
- c. Zergatik uste duzu horrela sentitu zarela?
- d. Nola sentituko ziren zure ikaskideak? ¿Zergatik diozu hori?
- e. Nola sentituko zen zure irakaslea? ¿Zergatik diozu hori?
- f. Nik neure burua.... sentitu dut. (Zergaitia adierazi).



g. ¿Uste duzu sentimendu hori beste modu batera adieraz genezakeela? ¿Nola?

Funtsezkoa da emozioak adierazteko beste modu bat ikusaraztea, bai eta hainbat antsietate-maila identifikatzea ere, kolapsoa saihesteko.

- e) **Balizko kalteak eragitea.** Sortutako kalteen argazkiak aterako dira.
- f) **Gertaera erregistratzea.** Irakasle guztiek sarbidea duten karpeta batean.

Karpeta honetan hurrengoak egongo dira:

- Eskatzen den informazioa betetzeko Word Dokumentua [1].
- Argazki edota grabatutako ebidentziak gordetzeko azpikarpeta.

4. PAUSUA: ERREFERENTZIAZKO HELDUAREN FUNTZIOAK.

- a) **Lasaitasuna eta egoeraren kontrola.** Errefortzuak lehenbailehen iritsiko dira.
- b) **Leiho guztiak ixtea eta gela ebakutzea.** Itxi leiho guztiak taldea korridorera ordenan irten eta hormaren kontra jartzen den heinean.
- c) **Adostutako gelara lekualdatzea,** non klasearekin jarraituko duten.
- d) **Gela arruntera itzultzea.** Aldez aurretik abisatuta, adostutako gelatik irtengo da eta klarion batekin X batez markatuko du atea. Horrek esan nahiko du ikasgela erabili dela eta desinfektatu barik dagoela. Eskolako atezainari garbitzaileari abisua emateko deituko diogu.
- e) **Gorabeheren erregistroa.** Irakasle guztiek sarbidea duten karpeta batean.

Karpeta honetan hurrengoak egongo dira:

- Eskatzen den informazioa betetzeko Word Dokumentua¹.
- Argazki edota grabatutako ebidentziak gordetzeko azpikarpeta.

5. PAUSUA: TUTOREAREN FUNTZIOAK.

- a) **Erregistroaren gainbegiratzea.** Tutoreak ziurtatuko du ikaslearekin esku hartu duten eragile guztiek osatzen dutela gorabeheren partea.
- b) **Familiarekin komunikatzea.** Tutorea arduratuko da komunikazio-bide espezifikoak ezartzeaz.

[1] gaztelaniaz beteko da, informazioa ikaslearekin esku hartzen duten kanpoko eragileekin partekatu ahal izateko.
